LAUDIO ikastola

2024/04/16

# ENJOY ENGLISH

## INGELESA LANTZEKO UDALEKU IREKIA

*Laudio Ikastolak "**Enjoy English**" ingelesezko udaleku irekia eskainiko du aurten ekainaren 24tik uztailaren 12ra.*

*Ikastolen Elkartearen Zirimola aisialdirako ekimenak garatutako proposamena da eta **Haur Hezkuntzako 5 urtetik eta Lehen Hezkuntzako 4. maila** bitarteko ikasleei zuzenduta dago 09:00etatik 13:00ak arteko ordutegiarekin.*

*Ikastolen Elkarteak sortutako ikasmateriala erabiliko da. Proiektuetan oinarritutako metodologia erabiliz, partaideek taldean eta modu ludiko batean aste bakoitzean gai bat landuko dute. Helburuak, besteak beste, ingelesezko komunikaziorako gaitasunak lantzea jolas dinamikaren bitartez edo ingelesa bizitzako egoera errealetan erabiltzea izango dira.*




### TALDEKATZEA

*Taldeak gehienez 12 lagunekoak izango dira eta adin tarteen arabera antolatuko dira. Toki kopurua baino izen emate gehiago suertatuz gero, izen emate datak ezarriko du parte hartzeko ordena.*

### KUOTA ETA ANTOLAKETA

*Udalekuak asteko erabilpena eskainiko du eta asteroko kuota 75€koa izango da.*

*1. astea 06/24-06/28*
*2. astea 07/01-07/05*
*3. astea 07/08-07/12*

### ORDUTEGI OSAGARRIA

*Beharrezko gutxieneko kopurua interesatuta egonez gero, ordutegi osagarria eskainiko da 8:00etatik 9:00era, asteko 10 euroko kuota gehigarriarekin.*

### BAJA IRIZPIDEAK

*Izen emate epea itxi baino lehenago jakinarazitako bajek ez dute ezer ordainduko.*

*Data honetatik aurrera ondorengo baja irizpideak aplikatuko dizkio ikastolari:*

*%90a itzuliko da ondorengo kasuetan, beti ere agiri baten bidez frogatuta:*
*- Gaixotasun edo istripua; medikuaren frogagiria behar da.*
*- Behar den txandara joatea eragozten duen ustekabeko edo beharrizan larria (justifikatuta).*

*Aurreko arrazoiengatik ez bada kuotaren %80a ordaindu beharko da baja ematean.*

*Behin udalekuak hasita, ez da dirurik itzuliko.*

*Izena ematean ikasle bakoitzak parte hartuko duen asteak zehaztu beharko ditu.*

***Eskaerak maiatzaren 13ra arte jasoko dira.***

**izena eman**